

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 11 / 677. zenbakia



'ESKUAK ELKARRI'

ARRASATEKO
HISTORIAREN GAINEKO
ANTZEZLAN MUSIKATUA

ORAIN ETA HEMEN: UDALAREN INBERTSIO PLANA/6 • KIROLA: ENDURO TXAPELKETA DOMEKAN/10

PROFESIONAL LIBERALEN GIDA/19

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 11**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 12**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 13**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 14**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 15**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 16**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUENA, 17**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 18**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

'ESKUAK ELKARRI'

Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi, hainbat herritarrek Arrasateren historiaren gaineko *Eskuak Elkarri* antzezlan musikatua egingo dute Amaia Udal Antzokian. Gaur eta bihar, 22:00etan izango da; eta domekan, 19:00etan.

HAUR DANTZARIEN EGUNA

Ekainaren 20an, Haur Dantzarien Eguna egingo dute. 500 ume inguru etorriko dira, eta boluntarioak behar dira umeak etxera bazkaltzera eramateko. Interesatuok jo dantza taldeen lokalera (Olarate kalea), AED edo Hirera.

HAUR HEZKUNTZAKO JAIA

Arizmendi Ikastolak Haur Hezkuntzako ikasleen ikasturte bukaerako jai antolatu du. Gaur, egubakoitza, egingo dute, Iturripe kiroldegian. 17:00etatik 20:30era, jokoak, musika, antzerkia, heziketa fisikoa eta abar egongo dira.

TXATXILIPURDIREN EKINTZAK

Txatxilipurdik aisialdirako begirale ikastaroa egingo du irailetik ekainera bitartean. Informazio gehiago Txatxilipurdin.

Ekainaren 21ean, ludoteketatik igerilekura irteera egingo dute. Apuntatu ludoteketan.

AEDrenAGENDA

DRAGOI JANEAN LAGUNTZEKO

Hainbat elkartek deialdia egin dute San Juan egunean, ekainaren 24an, Dragoi Janean laguntzeko. Interesatuok jo AEDra.

EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA

Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.I. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAIN DELA 10URTE ARRASATEN

Eskola Politeknikoak, eraikin berria inauguratu

Eskola Politeknikoak eraikin berria inauguratu zuen. Eraikin hartan, Saiolango ekintzak egin gura zituzten, eta goi mailako ingeniarietza eskolak emateko asmoa zuten. 600 milioi pezeta-ko aurrekontua izan zuen. Egun berean Europako Batasunaren konferentzia izan zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Korda"



Ristra.
— Kordak eñ da txintxiliz laga berakatzak.

GORKA ORTEGA


HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 4	7 °C
MAXIMOA Martitzena, 8	32 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	14,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	25 °C	15 °C	- l/m ²
Eguena, 3	23 °C	14 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 4	25 °C	7 °C	- l/m ²
Zapatua, 5	28 °C	8 °C	- l/m ²
Domeka, 6	31 °C	10 °C	- l/m ²
Astelehena, 7	32 °C	14 °C	- l/m ²
Martitzena, 8	32 °C	16 °C	14,9 l/m ²

Bergerako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Joseba Ugaldere elkarrizketa

Astean irratian izan da Joseba Ugaldere, ingurumenaz arduratu den zinegotzia. Aste Berdea zelaz joan den azaldu digu, eta aurrera begira zein gai landuko duten ere bai. Kaleetan txakur kakarik ez egoteko hainbat neurri hartuko dituzte; besteak beste, zakarrontzi bereziak ipiniko dituzte kaleetan. Zapatua eta domeka goizean ere elkarrizketa hori eskainiko dugu. Horrez gain, *Eskuak Elkarri* ikuskizunaren gaineko hainbat elkarrizketa ere emango ditugu.

Hauteskundeak astelehenean

Domekan Europako hauteskundeak egingo direla eta, astelehenean horren gainean arituko gara, 09:30ean. Hainbat lagunekin egingo dugu berba hauteskundeak utzitako emaitzen gainean. Arrasatekoak 09:00etako albistegian jasoko ditugu. 10:00etan, kirol kontuak aztertuko ditugu. Hala, domekako pilota finala jokatu dela eta, gai horrekin abiatuko gara, baina beste kirol emaitza batzuk ere ahaztu barik.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**
10:00 Asteko albistekak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Joseba Ugaldere, Eba Ruiz de Egin eta Larraitx Arando, Sexologia Zerbitzuko langileak, teire Okarantza, abokatua...
- DOMEKA**
10:00 Asteko albistekak
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: efermerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- MARTITZENA**
19:10 Iluntzean Jose Maria Setien
- EGUENA**
19:10 Noraezean

KALEINKESTA/ Udalak neurrixek hartu biher dittu txakur kakak diela-eta; badau motiborik?




IMANOL MORENO
Langillie



SATUR MORENO
Langillie



AGUSTIN BENITEZ
Langillie



ANTONIO MARTIN
Erretiraue



MARIA ROSA JIMENEZ
Langillie



MARI CARMEN PERALES
Langillie

Argi dau txakurren jabiek horreik gauzok zaindu egin biher dauela, iñori ez jako gustetan-eta txakur kaka zapalke. Hala eta be, ez dot uste Mondraguen horrenbesteraue danik.

Bai. Txakurren jabiek ez daue horreik gauzok askorik zainketan. Neuk txakurre euki izen dot urte askuen, eta horreik gauzok zainketan neuen. Gutxienez, bedarretara erueten neuen.

Neuk uste dot horreik gauzok ez dogule askorik zainketan, baiñe ez dakit nik multak jarritte ezer konponduko dan. Argi dau, baiñe, jabiek kontu haundi-xaue euki biherko leukela.

Problema haundixe dala pentsetan dot, eta neurrixek hartu biher die. Etxera bidien lurrera begire juten naz, badaezpada be. Bakotzak etxera eruen daitela berie dana.

Neuk uste dot badauela motiborik. Neuk txakur bat dauket, baiñe ahaleginetan naz txakurrak kaka egiten dauen bakotxien kakak batzen. Horretarako papelakin urtetan dot kalera.

Udalak neurrixek hartzie oso ondo pentsetan jat, gai horrekin problema haundixe daukogu-eta. Jentiek ez dau holakuek bape zainketan, eta hola egoten die kaliek gero...

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BURDINAZKO ESTALKI ARRISKUTSUAK Erdialdeko autobus geltokiaren inguruan hainbat zuhaitz daude. Irakurle batek aditzera eman digunez, zuhaitz batzuen azpialdean dauden burdinazko estalkiak gorantz igota daude. Horren erruz, hainbat lagunek, batez ere hirugarren adinekoek, istripuak izan dituzte. Irakurle horrek Udalarri eskatu gura dio burdin horiek dagokien moduan ipintzeko.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 9

KULTURA / 13

San Josepe harrobia

San Josepe Bi enpresaren ikuspuntua adierazi digu harrobiaren kudeatzaileak.

Bittor Amozarrain

Arrasatearrak Gasherbrum II zortzimilakoa igotzeko asmoa du, eta elkarrizketan egin diogu.

Balet erakustaldia

Martitzenean, Arrasateko Musika Eskolako ikasleek erakustaldia egingo dute Seber Altuben.

ASTEKO DATUA

150

LAGUN EGIN ZIREN ORGANO EMAILE ZAPATUAN

Joan den zapatuan, bihotza transplantatuta duten lagunen Atcore elkarteak mahai informatiboa ipini zuen Portaloian. Hain zuzen, hiru orduan, 150 organo emaile lortu zituzten.

BESTEKE SANA

“Lagun on batek jakitera eman zidanez, Arrasateko kooperatibismoaren lehenengo ezaugarrietako bat, garrantzitsuena beharbada, besteekiko konpromisoa izan zen. Batez ere besteak, kaltetuenen, txiroenen bizi baldintzak hobetzeko ekin zioten kooperatiben bideari. (...) Arrasate eta inguruan ekin zioten kooperatibak sortzeari, funtsezko beste ezaugarri bat zutela: aberastasuna sortu, eta irabaziak bertan gera zitezela segurtatu (...). Orain, fagol, ilizal eta enpalauek Txinara doaz, ez behargin edo lehengai merkeagoen bila: hara doaz, aberastasuna sortu, eta bertan uztera, ahalik eta lagun gehien artean utzi ere. Hara doaz, langileei euren burua antolatzeke aukera ematera; aspaldiko Arrasaten legez...”

MIKEL BASABE
'ARGIA'/04-06-06

HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



Arrasate ezberdinak

Aspaldi honetan Arrasateri buruzko liburu asko agertzen da edo berragertzen ari da. Hala nola: 1936ko gerrari buruzkoa, Arrasate argazki bidez ikusia, langileen Arrasate, Arrasate naturala, San Viatorreko Arrasate...

Eta honek zer pentsa eman dit. Badirela nik ikusten ditudan baino Arrasate gehiago. Irakurritako liburu denek gauza asko erakutsi dizkidate. Askota eta asko aspaldi gertatutako gauzei buruz, baina oraindik ere bizirik egon daitezkeenak. Beste batzuek, bizirik daudenak eta zaindu beharrekoak.

Liburutan agertzen ez den Arrasate ezberdina ere badago, egunero-egunero berritzen eta aldatzen ari dena. Jendeak eginikoa, alegia. Adibide gisa, asteburu honetan egingo den antzezlanarena. Kasualitatez, antzezlan horretako entsegu baten egon nintzen, eta benetan harrিতuta irten nintzen handik. Jende desberdin pila

bat elkarrekin lanean: dantzariak, kantariak, musikagileak, idazlea, zuzendariak, antzezleak... 180 lagunek esku hartuko dutela esan didate. Lan da lan, guri aspaldiko Arrasate erakusteko asmotan.

Antzezlan hori ikusterakoan ez dakit imajinatu ahal

“Eskuak Elkarri antzezlanak Arrasate ezberdinak kontrajarriak ez direla erakutsi nahi digu”

izango den zenbat lan dagoen horren atzean, baina nik zati txiki bat ikusita lan handia ikusi nuen. Niri behintzat ikuskizuna ikusteko gogoia piztu zidaten.

Gainera Arrasate ezberdinak kontrajarriak ez direla erakutsi nahi

digutela entzun dut nonbait. Arrasate ezberdinak elkarrekin bizi daitezkeela eta bat egin.

Animo eta zorte on antzezlanetan lan egingo duten guztiei, eta dudarik ez izan ikusteko aukera duenak zuek egindako lanaz gozatuko duela.

Aukera ona da gertatutakoaz zerbait ikusteko eta halako gertaerak berririo gerta ez daitezten. Animatu eta ikustera joatea gomendatzen dizuet.

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Gazte mugimenduak 25 urte

Asteburuan gazte mugimenduak 25. urteurrena ospatu du, eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute: "Azkeneko 25 urteotan gura beste lan izan dugu, eta esan genezake datozen 25 urteetarako ere lana izango dugula".

Zapatuan hainbat ekitaldi egin zituzten. Lehenengo, Seber Altuben *25 urte borrokan tinko* lelodun plaka jarri zuten, eta ospakizunaren zergatiak ere azaldu zituzten jendaurrean. Gero, gaztetxean jarraitu zuen ospakizunak, eta besteak beste, preso mondragoetarrak izan zituzten gogoan.

Arizmendik proiektu berria aurkeztu du

Arizmendi ikastolak ARIPTIC mugaz alde bietako formazioa *on line* izateko helburu duen proiektua aurkeztu berri du.

Proiektu hori Akitaniako INSUP formazio zentroarekin batera sortutakoa da. Proiektu horrekin, mugaz bi aldeetan material didaktiko bera sortu eta erabili gura dute, lurraldeen arteko ezberdintasun kultural eta pedagogikoak murriztuz. Horretarako, teknologia berriak erabiliko dituzte, interneteko zerbitzari bat, zehazki. Zerbitzari horri esker, edozein motatako kontsultak egin ahal izango dituzte, eta ikasleek ikasketak errazago egin ahal izango dituzte.

MUK eta Euskalitek hitzarmena

Mondragon Unibertsitateak eta Euskalitek kudeaketa metodologia eta ikerketa proiektuak garatzeko hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horrek unibertsitate eta enpresa munduan etengabeko hobekuntza eta erabateko kalitatea sustatzea eta dinamizatzea ditu helburu.

Eta, Mondragon Unibertsitatea Euskalitekin kalitatearen inguruan erabateko konpromisoa hitzartzen duen Euskal Herriko lehen unibertsitatea da. Hitzarmen horren arabera, bi entitate horiek elkarlanean jardungo dute.



Elkartasun Eguneko tonbolako saritua

Maiatzeko azken asteburuan egin zuten Arrasateko gobernu kanpoko erakundeek Elkartasun Eguna, eta Celia Campok irabazi du egun hartan egin zuten tonbola saria. Kantabriako hotel batean asteburu bateko egonaldia egin ahal izango du Celiak, Ibai-Artek emandako sariari esker.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

'Eskuak Elkarri'

San Juanak heltzeaz daude eta temperatura izugarri berotu da azken egunotan. Hala ere, oraindik denbora pixka bat falta da udako oporrak hartzeko. Beharbada, horregatik bat baino gehiago alde egiteko amorratzen egongo da.

Bestalde, udal langileak lanuzteak egiten dabilta, eta ez dakigu horrek jaietan txarrerara eragingo duen. Hori

bakarrik falta da! Dagoeneko, Udalaren eta hainbat talderen arteko harremana zeharo gaiztotu da.

Udalak, gaztetxeak eta txosnek hainbat ekintza antolatu dituzte, eta guztien baturak emaitza polita egin du. Baina, jakina, ez dira guztiak gauzak antolatzeko batu.

Horrela dago herria eta agian, horregatik, arrazoia

izango dute *Eskuak Elkarri* ikuskizuna prestatu dutenek. Historian, aspaldidanik herria banatuta egon dela diote eta hori irudikatuko dute Amaia Udal Antzokian. Meritu handia dute halako ikuskizun erraldoia sortu, prestatu eta egingo dutenak, baina meritu askoz handiagoa izango dute herrian banaketaren ordez indar metaketa lortuko dutenek. Ez da erraza eta gutxienez jarrera aldatzea ezinbestekoa da. Ea ikasten dugun!

ASTEKOIRUDIA



MARTITZEN ILUNTZEAN, DEBAGOIEN TROPIKALA IZAN GENUEN

Azken egunotan bero galanta eta sargoria egiten dabil. Seguruena horren erruz, martitzen iluntzean izugarriko ekaitza egin zuen ibarrean. Arrasaten, esaterako, oso lagun gutxik gogoratzen dute halako ekaitza. 19:00ak aldera, euria gogor hasi zuen eta horrekin batera izugarriko haizea ibili zen.

Tropikoetako ekaitza zirudien. Bat-batean errepi-deek erreken antza hartu zuten, eta tarteka argia ere joan zen. Are gehiago, hainbat garaje eta etxebek gainezka egin zuten, eta zenbait auzotan arazoak izan zituzten. Ordubeteko uholdeak bizi izan genituen martitzen iluntzean. /I.B.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43



Pando Errotuloak


Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak



ATZEGIK URTEROKO JAI AEGIN ZUEN SUDC-EN ESKUTIK


Urtero moduan, SUDC elkarteak Atzegiren jai antolatu zuen. Joan den zapatuan, ekainaren 4an, egin zuten. Atzegiko 25 neska-mutilek bazkaria izan zuten Uarkape jatetxean, eta bazkalostean, trikitixa talde batek giroa alaitu zuen. Alkatea eta SUDCeko arduradunak ere bazkarian izan ziren, eta behin bazkaria bukatu ondoren, neska-mutilei sariak banatu zizkieten. Atzegiko kideek egun zoragarria pasa zuten eta dagoeneko datorren urteko jaiaren zain daude.



MONTEKO GIROKO PORRAN, SARI NAGUSIAK EZ ZIREN MONDRAGOETARRENDAKO IZAN

Joan den astean banatu zituzten Monte tabernan aurtengo Giroko porrako sariak, eta egia esan, Arrasaten ez zen diru askorik geratu. Lehenengo saria Azkoitia aldera joan zen, Saioa Arrizabalagaren izenean zegoen apustua nagusitu zen-eta. Irabazleak 4.104 euro eskuratu zituen. Bigarren saria, berriz, Deba aldera joan

zen, hangoak dira-eta Britz taldeko lagunak; Debakoek 2.565 euro eskuratu zituzten. Hirugarren saria bai, sari hura Arrasaten geratu zen, Garoa izeneko taldearendako izan zen: 1.285 euro. Eta, hurrengo zazpi taldeendako ere sariak izan ziren, talde bakoitzak 256 euro eskuratu zituen-eta. Afari on baterako, bai, behintzat.



MUGARRIZ MUGARRI LEZE TXIKIRAINO

Argazkiok Zahar Berriko Berba Taldeko lagunak dira, eta maiatz bukatuan AEDC antolatutako Mugarriz Mugarriz ekimenarekin bat egin, eta Garagartzan dauden Leze Txikiko kobetan izan ziren. Kobak bisitatu bai, baina sabela ere ederri bete zuten, kobatik irtena egin zuten bazkarian.



EZKON AGURREKO AFARIA ARRASATEKO PRINTZEARI

Arrasateko printzeari ezkon agur afaria egin zioten joan den astean koadrilakoek. Edorta Ayastuy oraingo asteburuan ezkonduko da, eta agur afarian lagunak printze jantzi zuten, errepublikarra, baina. Goizean Arrasateko kaleetan zehar ibili ziren gora eta behera, automobileko leihatilatik herritarrak agurtzen. Gero, Lasturren izan ziren, zezen artean toreatzaile lanak egiten. Amaitzeko, Zarautzen egin zuten parranda, galanta, gainera.

HIRIGINTZAKO LANAK/ Udalaren inbertsio plana

Datozen hiru urteotarako inbertsio plana lantzen dabil Arrasateko Udala

UBANE MADERA

Datozen hiru urteotarako inbertsio plana lantzen dabil Arrasateko Udala. Batzuk aipatzearen, Alai zinema erostea negoziatzen dabil Udala eta Udaltzaingoa erosteko egoitza berri bila; azken horren kasuan, ertzain etxea dute buruan.

Zirriborroa da Udalaren inbertsio plana. Dena dela, plan horren arabera, hamazazpi inbertsio edo egitasmo egin gura dituzte datozen hiru urteotan. Zenbait kasutan, proiektuak abiarazita dituzte, baina bestetan negoziatze prozesuan dabilta oraindik. Era berean, inbertsio gehiago sartzea ere erabaki dezakete. Eta behin guztia erabakita eta zehaztuta dutenean, oraindik ere, udalbatzarrak onepena eman beharko dio inbertsio plan horri. Asmoa da udako oporrak baino lehenago egingo den osoko bilkura batean lantzea gaia.

UDALTZAINGOA ERTZAIN ETXERA

Aipatu dugun moduan, inbertsio planeko egitasmo batzuk abiarazita ditu Udalak: Biteri aparkalekua egitea, kultura etxea egitea eta Akeiko erraustegia berreskuratzea. Beste egitasmoetako batzuk oraindik proiektu dira: Musika Etxea eta Museo Industrial (Saiolanen), Bedoñabeko Haur Eskola, Muxibarko bidegorria eta Zerrajerako urbanizazioa, esaterako. Eta gainerakoak negoziatze prozesuan dabilta. Hain zuzen ere, azken horien artean daude berritasun nagusienak; adibidez, Udala negoziaketetan dabil bestelako zenbait interesatu pribaturekin Alai zinema erosteko. Egin gura dutena da zinemaren goiko solairua Udalaren

Inbertsio plana abiarazteko udalbatzarraren onepena behar dute

Arrasateko ertzain etxea herriko udaltzainendako izatea gura dute

dako bulegoak egiteko erabili (Udala txiki geratu da-eta) eta beheko solairuan kafe-antzoki bat egin. Edozelan ere, esan bezala, oraindik zinema erosteko negoziatzen dabilta jabearekin.

Udala negoziatzen dabilen beste proiektu bat zera da: Gipuzkoa etorbidean dagoen ertzain etxea herriko Udaltzaingoa izatea. Kontua da eraikin hori Eusko Jaur-laritzarena dela. Hala, Udala Jaur-laritzarekin negoziatzen dabil eraikina eskuratzeko.

Eta bestelako proiektu txikien artean, Udalak ur sarean hobekuntzak egitea aurreikusi du; Abaroa lekuz aldatu gura du Iturbide Egoitzak leku gehiago izateko eta zenbait dirulaguntza Mondragones kaleko lanak egiteko erabili gura ditu. Horrez gainera, besteak beste, Amaia Udal Antzokian hobekuntza lanak egitea ere aurreikusi du datozen hiru urteotarako inbertsio planean.



Udalaren asmoa da Alai erosi eta goiko solairuan bulegoak ipini; behekoan kafe antzoki bat egin gura dute zenbait pribatuk.

Datozen hiru urteotarako Arrasateko Udalaren egitasmoak

Biteri aparkalekua	3.06.432 €	Perco (Mondragones kalea)	1.241.766 €
Kultura etxea	15.578.613,90 €	Abaroa	Eskaera
Musika etxea eta museo	Proiektua	Alai zinema	Negoziatzen
Mojategiko kiroldgia	Proiektua	Udaltzaingoa erostea	Negoziatzen eta proiektua
Akei berreskuratzea	2.404.048 €	Zerrajerako urbanizazioa	Proiektua
Bedoñabeko Haur Eskola	300.506 €	Amaia Udal Antzokia	Hobetze lanak
Muxibarko bidegorria	Proiektua	Ur sarean lanak	Hobetze lanak
Izartu proiektua	Eskaera	Mantenua	Ezusteokoendako



Emakumeen kontrako erasoak

Iragarritakoari jarraituz, oraingo asteko astelehenean, hilak 7, emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak salatzeko kale bilkura egin zuten Herriko Plazan. Udaleko Emakume Sailak eta Arrasateko Emakume Kontseiluak antolatutako ekimena da, baina, Tokiko Gobernu Batzarrak ere ekimenean parte hartzeko dei egin zuen. Asmoa da hilero egitea halako batzar bat, hileko aurreneko astelehenean. Oraingo asteko kale bilkuran 40 bat lagunek parte hartu zuen.

LABUR

Bake epailea eta haren ordezkoa izendatu behar dituzte Arrasaten, lau urterako

Orain arteko bake epailearen lau urteko jarduna bukatu dela-eta, datozen lau urteotarako bake epailea eta haren ordezkoa izendatu beharko ditu Udalak. Hori egiteko hautaketa prozesuaren oinarriak onartu ditu oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrean. Besteak beste, oinarriotan zehaztu dituzte bake epaile izateko bete beharreko baldintzak, honako hauek: 18 urte edo hortik gorakoa izatea eta nazionalitate espainola izatea. Era berean, ezin da egon ez prozesatuta ez kondenatuta doluzko delitu batengatik (betiere gizartratuta ez badago). Karguaren egitekoak normal betetzeko ezintasun psikiko edo fisikorik ezin du izan. Ahoz zein idatziz, euskaraz eta espainolez lan egiteko gauza dela egiaztatu beharra dauka. Ezin du jardun ez abokatu ezta prokuradore moduan. Ezin du izan, ezta ere, kargu politikorik edo sindikalik. Ezin da izan funtzionarioa ezta administrazioko langilea ere. Ezin du jardun lege aholkulari moduan (nahiz eta kobratu barik ibili). Eta Ezin du legeak zehazten dituen bateraezintasunik izan. Interesadunak 20 bat eguneko epea du eskaerak aurkezteko, udaletxean; gero, aurkeztu direnekin Udalak hautaketa prozesua egingo du.

HARROBIA/ San Josepe harrobiaren ikuspuntua

San Josepe harrobia ixteko Udalak hartutako erabakiari errekurtsioa ipini diote

UBANE MADERA

San Josepe harrobiko kudeatzaileak jakinarazi digu errekurtsioa ipini diotela harrobia ixteko udalbatzarrak hartutako erabakiari. Hain zuzen ere, harrobikoek prentsa oharra bidali dute jasotako kritiken aurrean enpresaren ikuspuntua azaltzeko.

San Josepe harrobiarekin lotuta, politikarien, talde ekologisten, enpresen eta abarren kritika asko entzun ditugu azkenaldian. Orain, San Josepe harrobiko kudeatzaile Bienvenida Martinezek prentsa oharra bidali du komunikabideetara, enpresaren ikuspuntua azaltzeko. Oharrean, zazpi puntutan jaso ditu harrobikoaren esanak. Hala, lehenik eta behin dio ez duela eztabaidetan hasi nahi komunikabideetan agertutako informazioa dela-eta, edozelan ere, gaineratu du herritarrei harrobikoaren ikuspuntua entzuteko aukera eman guran egin dutela idatzia. Horren ostean, esplikatu dute Udalarekin sinatutako bi hitzarmenetan (93-03-05 eta 95-04-27) harrobiaren ustiapenari epe-muga ezarri ziotela batetik eta bestetik, industrialde berria egiteko ingurua berreskuratzeko hitzarmena sinatu zutela. Baina, gaineratu dute, era berean, azken helburu

Kudeatzaileak dio industrialdea eraikitzeo derrigorra dela hura berreskuratzea

hori lortzeko, Udalak Egitamuan arau subsidiarioak aldatu behar zituela eta plan partziala onartu. Hain zuzen ere, San Josepeko kudeatzaileak bidalitako prentsa oharra dioenez, 2001eko urriaren 9an eta 2003ko maiatzaren 13an onartu zituzten aipatutako bi agiriak; eta horrek eragotzi egin zien harrobikoari ingurua berreskuratzeko lanak egitea.

AZKEN LANAK EGITEA FALTA

Horrekin batera, Bienvenida Martinezek argi utzi gura izan du San Josepe harrobian, harrobiko ustiapen lanez gain, beste-lakoak ere egiten dituztela: harria prozesatu eta eraldatu eta hormigoia egin. Kasu horretan, beharrezko erakunde guztiek eskatutako baldintzak bete egiten dituela azaldu du San Josepe harrobiaren gaineko prentsa oharra.

Horrekin batera, gaineratzen du Udalak gura duen indus-



NEREA ZUBIETE

Harrobikoek ipinitako errekurtsioaren ondorioz, udalbatzarrak harrobia ixteko hartutako erabakia ez da finkoa.

trialdea eraikitzeo derrigorrezkoa dela ingurua berreskuratzea eta hori egiteko maila batzuk biribiltzea besterik ez zaiela falta.

ERREKURTSIOA

Bukatzeo, jakinarazi du harrobiak errekurtsioa ipini duela 2004ko martxoaren 29an hartutako Udalaren erabakiari; harro-

bia ixtea erabaki zuen udalbatzarrak egun hartan. Hala, harrobiko kudeatzaileak dio horren ondorioz, Udalaren erabakia ez dela finkoa oraindik.

ETXE-ABEREAK/ Etxe-abereen gaineko legedia

Etxe-abereen gaineko legedia betearazteko erabakia hartu du Udalak

U.M.

Agenda 21 egitasmoaren barruan, Udalak etxe-abereen gaineko legedia betearaziko du. Besteak beste, txakur-kakak batzeko edukiontzi bereziak ipiniko dituzte. Horrez gainera, etxe-abereei eman beharreko tratu egokiaren gaineko informazioa zabalduko dute.

Arrasateko Udalak berez ez du etxe-abereen gaineko araudirik. Baina, indarrean dagoen legedia betetzeko neurriak hartuko ditu. Hala erabaki du oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrean.

Zera erabaki dute: lehenengo indarrean dauden legeen gaineko informazioa ematea herritarrei; esku-orriak, kartelak, eskoletan berbaldiak... egingo dituzte hori lortzeko. Horrekin batera,

hamabost bat egunez begiraleak etorriko dira Arrasatera eta kalez kale ibiliko dira herritarren iritzia hartzen eta herritarrei etxe-abereak (txakurrak, bereziki) zela zaindu esplikatzeko.

GEHIEGIZKO TXAKUR-KAKAK DIRELA ETA

Horri guztiari laguntzen, txakur-kakak batzeko edukiontzi bereziak ipiniko dituzte herriko zenbait lekutan; bereziki, pasealekuan, han ibiltzen dira-eta txakur-jabe gehienak. Edukiontzi horiek, batetik, txakur-kakak batzeko plastikoak izango dituzte eta bestetik, batutakoa botatzeko lekua.

NOIZ HASI ETA NOIZ BUKATU

Udalaren asmoa da ekainaren 21ean abiaraztea etxe-abereen gaineko kanpaina hori. Hasteko, gai horrekin lotura dutenekin

mahai bat eratuko dute, egoera aztertzeo. Animalien Lagunen Elkarteak, herriko albaitariak, Udaleko ordezkariak, animalien jabeek... parte hartuko dute. Gero, uztaila hasieran informazioa banatzen hasiko dira (esku-orriak, kartelak...); edukiontziak uztailaren 5aren eta 9aren artean ipiniko dituzte eta begiraleak uztailaren 3tik 11ra bitartean ibiliko dira Arrasateko kaleetan. Bukatzeko, oporren ostean, irailean, udaltzaingoarekin landuko dute gaia, eta 13tik 17ra, ikasleekin.

BETE EZEAN, ZIGORRAK

Behin hori guztiori egin ostean, etxe-abereen gaineko legea betetzen ez duenari zigorrak ipini diezazkioke Udalak. Ingurumen Saileko buru Joseba Ugaldek Arrasate Irratiari esandakoaren arabera, baita isunak ere.



U.M.

Txakur-kakak batzeko edukiontzi bereziak ipiniko dituzte uztailan.

BEHEKODENDATIK

Mirari Garitaonaindia

PORTALOI OPTIKA

XABIER URZELAI

Mirarik hamazazpi urte daroie optiketan lanien; urte asko die horreik, eta ofiziue lanien ikesi dauela esaten dau. Bera, baiñe, jentie atendiduten ibiltten da, begixen gaiñeko azterketak lankidiek egitten ditte-eta. Gabonetan zabaldu euen Portaloi Optika, eta jo eta su dabitz lanien.

Ze falta jako Mondragueri?

Aparkalekuek falta jakola begi bistakue da. Eta, ganorazko igerilekue be bai, dauena txiki geratu da-eta.

Eta, ze dauko ona?

Ondiokan herri bat dala; onerako edo txarrerako, danok alkar ezaguketan dogule.

Ze falta jatzu zeuri?

Denpora librie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Kilo batzuk (Barriek).

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

La lista de Schindler / El conde de Montecristo / Malevaje.

Momentu honetan nora juen-go zitzake gustora?

Egiptora.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Plantxie, eskobie pasau, kristelak garbittu...

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?

Bueno!!! Ez dauket horretarako denporarik!!!

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Etorten dien produkto barrixek ondo ezaguketie.

Denpora librien ze egitten dozu?

Igeri egittie gustetan jat.

Kapritxo bat.

Biaje bat.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Donostia.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Pakien bizi garela.

Ze lan egitten dozue Portaloi Optikan?



“Hiru euroko betaurrekuek kaltegarrixek die; ulie batzeko balixo daue”

Neuk deponentia lanak egitten dittut; lankidiek, bestiek beste, betaurrekuak graduau, lentillen asuntue eruen eta begixen tensiñue hartzen dau. Optika baten egitten dan lana, azken baten.

Nahikue zainketan dogu geure bistie?

Jentiek gerueu eta gehixau zainketan dau bistie. Lanien rebisiñuek egitten die, umiek be kontrol haundixe eukitten daue... Hala eta be, ordenadoriek egitten dutzo kalte haundixe bistiei, baiñe lanerako biher dogunez...

Gaur egun dauzen betaurrekuekin, bistako problemak euki barik be betaurrekuek erosteko gogue emuten dau.

“Jentiek gerueu eta gehixau zainketan dau bistie: ordenadoriek egitten daue kalte haundixe”

Bai, egixe esatiarren, oso politte egitten dittue, baiñe oso jente gutxi dau bistie ondo euki eta betaurreko billa etorten dana. Egon badauz, modara jueten dienak...

Eguzkittako betaurrekuek barra-barra salduko dozue.

Bai. Normalien Aste Santu ostien hasten gare eguzkittako betaurrekuek saltzen, baiñe aurten eguraldi txarra egin dauenez, atzeratu egin da.

Hiru eurogatik salgai egoten dien horreik betaurrekuok, ze?

Horreik txarrak die, begixei min egitten dutzie-eta. Ulie jasota eukitteko balixo daue.

Betaurreko marka bat.

Vogue, Dolce Gabana...

NIREBIDAIAHURA/ Iker Sanpedro

Europako ipar-ekialdea / 2004an

Lituanian geratu ginen joan den astean, Iker Sanpedrorekin. Esan bezala, Ingeniaritzako proiektua egitera joan zen Iker Lituaniara, eta bost hilabete eman zituen horretan. Lituanian egoteko baimena, baina, lehenago amaitu zitzaion: “Otsailean amaitu zitzaidan ikasle bisa, eta Finlandiako lagun batekin Lituaniatik irten behar izan nuen; Rigan izan ginen asteburupasa, eta itzuli ginenean turista bisa eman ziguten”.

Proiektua Arrasatera itzuli baino 20 egun lehenago amaitu zuen, eta egun haietan Ikerrek bazekien zer egin: “Astebeteko bidaia egiteko asmoa geneukan. Nik Errusiara joan gura nuen, baina lagunek pasaportearekin arazoak izango zituztela uste zuten, eta Poloniarako bidea hartu genuen. Lagun batzuk bisitatzeko aprobetxatu genuen Poloniako egonaldia. Posnan-en bizi dira lagunak; ez zitzaidan aparteko lekua iruditu. Krakovia, berriz, gehiago gustatu zitzaidan”. Iker eta lagunak Auschwitz-eko kontzentrazio-esparruetan ere izan ziren: “Zaila da horrenbeste jende horren egoera gogorrearan egon zela sinistea. Barrakoietan oso leku txikia zegoen, eta jende mordoa sartzen zuten han. Gu egon ginenean neguko hotzak atzean utzita geneuzkan, eta hala ere, sekulako hotza egiten zuten”.

Polonia atzean utzi eta Eslovakia gurutzatu eta gero, Austriara abiatu ziren, Vienara, hain zuzen. Ordurako, baina, Ikerren lagunetako batek, Brahim-ek, etxerako bidea hartu behar izan zuen: “Brahim-ek ez zeukan gainontzeko lurraldeetara sartzeko baimenik, eta Polonian egun batzuk egin eta gero, Lituaniara itzuli zen. Gainontzekook aurrera egin genuen”. Datorren astean jarraituko dugu Europako ipar-ekialdean zehar egindako bidaiarekin.

XABIER URZELAI



Auschwitz-eko barrakoi batean ateratako argazkia.

“Ikasle bisa agortu eta Lituaniatik irten behar izan nuen”

“Neguko hotzak atzean utzita geneuzkan, eta hala ere...”

**EGUZKILARU
HAUR ETA GAZTETXOEN FESTA EGUNA
AURREPRESTAKETA EKAINAK 17**

Seber Altube plazan kamiseta tindaketa;
eraman ezazu zure kamiseta!
Horren ondoren, Ibai-Arte antolatuta
ikuskitu bikaina eta opari banaketa.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

**Rekolore antzerki
taldearekin
kale animazioa!**

ELKARRIZKETA

BITTOR AMOZARRAIN/MENDIZALEA

"Gasherbrum II ez da zortzimilako gaitzena, baina kontu handiz ibili beharko dugu"

XABIER URZELAI

Bittor Amozarrain bihar abiatuko da Himalaia aldera. 39 urteko mondragoetarra lehenengo aldiz saiatuko da zortzi mila metroko mendi bat igotzen, eta Gasherbrum II mendia aukeratu du (8.035 metro). Bueno, aukeratu baino gehiago, gonbidatu egin dute hara joatera.

Datozen asteotan aspaldiko ametsa betetzeko aukera izango duzu.

Bai. Aspaldidanik daukat gogo horrelako espedizio batean parte hartzeko, eta azkenean iritsi zait aukera. Orain dela lau urte Josu Peredak eta hainbat lagunek Broad Peak mendira egin zuten espedizioa, eta azken momentuan ez nintzen joan. Eta, *Ketxuma* eta beste hainbat lagun Nanga Parbat-era joan zirenean ere gonbidatuta nengoen, baina ez joatea erabaki nuen. Nanga Parbat ez da mendi erraza, eta hara zihoazenak teknikoki ni baino hobek ziren.

Gasteizko lagun batzuekin egingo duzu espedizioa.

Bai. Gasteizko bost lagun hasi ziren Gasherbrum II mendira igotzeko espedizioa prestatzen, eta eurekin joatera gonbidatu ninduten. Orain dela urte eta erdi hasi ginen lanean, eta gaur arte.

Garestia izango da ba horrelako espedizio bat.

Bai, garestia da. Oraindik ezin dezaket esan zenbat diru gastatuko dugun, kontuak itzultzera koan egingo ditugu-eta. Baina geure poltsikotik 6.000 euro baino gehiago ordaindu beharko ditugula, seguru. Lehenengo gastua kamisetak egiteko egin genuen. 800 euro jarri genituen, eta kamiseta horiek Arrasaten salgai daude. Lehenengo gastua egin genuenetik gaur arte euro asko jarri ditugu, eta jarriko ditugunak oraindik...

Izan duzue laguntzarik?
Bai, eta gainera eskerrak eman gura dizkiet lagundu dituzten elkarte eta enpresei: LKS, Euskadiko Kutxa, Astore, Construcciones Olabarrieta eta Iris kirol dendaren laguntza izan dugu. Baina, tamalez, laguntza horiek aurrekontu osoaren %5-edo izango dira. Azken baten, gaur egun dirulaguntza handiak lortzeko izen handiko mendizalea izan behar duzu, edo igoera oso bereziren bat egitera joan.

Zelako mendia da Gasherbrum II?

Zortzi mila metroko mendien artean, garaiera txikienetakoa duena da, eta gainera ez da beste mendi batzuk bezain gaitza, ezta



XABIER URZELAI

"Nik ez dut entrenamendu berezirik egin, baina urte osoa daramat kirola egiten"

arriskutsua ere. Hala ere, zortzi mila metroko mendi bat da, eta erraza ere ez da izango. Diotenez, Cho Oyu eta Sisha Pangma dira zortzimilako errazenak, eta Gasherbrum II mendia da hurrengoa; espedizio komertzialak ere joaten

"G2ra igotzeko soka finkoak daude. Ikusi egin behar, baina, soka horiek zein egoeratan dauden"

dira mendi horretara; hortaz, oso gaitza ere ezin da izan. Besteak beste, Edurne Pasabanekin eta Alberto Inurrategirekin izan gara berbetan eta mendia nolakoa den azaldu digute. Soka batzuk finko jarrita daude,

"Horrelako espedizio bat oso garestia da; dirulaguntzek aurrekontuaren %5 betetzen dute"

baina ikusi egin beharko dugu zein egoeratan dauden. Gainera, soka berriak jartzen dituzten lagunei ere ordaindu egin behar zaie, lan handia hartzen dute-eta. Espedizio bakoitzak ordaindu behar izaten du guzti hori; ez da diru

asko, pertsona bakoitzeko 35 dolar inguru-edo.

Azal diezaguzu datozen egunotan egingo duzuen.

Lehenengo erronka Islambaderaino iristea izango da. Pare bat egun egingo ditugu han, eta gero beste sei egun beharko ditugu lehenengo kanpamendura iristeko. Esan digutenez, kanpamendu hori leku onean dago, eta lehenengo denez txukun jartzen ahaleginduko gara. Gero, ikusi egin behar zenbat kanpamendu gehiago beharko ditugun. Batzuek lau kanpamendu jartzen dituzte, beste batzuek diote hiru kanpamendurekin nahikoa dela. Kanpamenduak jartzeko lekuak aurrez daude ezarrita, baina metro batzuk gorago edo beheago alde handia egon daiteke. Argi daukagun gauza bakarra da uztailaren 31n itzuliko garela.

Itxuraz, Gasherbrum IIra joateko egin behar den trekking-a ikusgarria ei da.

Bai. Entzun dudanez munduko trekking politenetakoa ei da, eta bada zerbait. Horrela, mendi gailurrera igotzea lortzen ez badugu, gutxienez, trekking eder bat egiteko aukera izango dugu. Gasherbrumera bidean K2 eta beste hainbat mendi ikusten dira, eta bai, ikusgarria ei da. Hala ere, gailurrera igotzen ez bagara pena handia hartuko dut, horrelako espedizio bat errepikatzea ez da eta egunero egin daitekeen zerbait. Loteria tokatuz gero...

Zer-nolako entrenamendua egin duzu?

Gainontzeko kideek esfortzu probak eta horrelakoak egin dituzte, eta entrenamendu bereziak izan dituzte. Entrenamendu horiek lanean esfortzu fisikorik egiten ez dutenentzako dira. Nik Valdezcarayn igaro dut negua, mendiko eskiko eskolak ematen. Goizean, eskiatzen ibiltzen nintzen, eta arratsaldean korrika egitera joanez gero leher eginda amaitzen nuen. Gainera, hurrengo egunean an egiteko moduan egon behar nuen. Horregatik, ez dut entrenamendu berezirik egin, baina askotan joan naiz mendira, urte osoa daramat kirola egiten.

Hortaz, ez duzu gainontze-koen entrenamendu bera egin.

Ez. Negua amaituta neure kasa ibili naiz entrenatzen. Pirinioetan ibili naiz, eta Hiru Handiak ere egin gura nituen, baina esan zidaten ez zela gomendagarria. Gainontzekoak pultsometroarekin ibili dira gora eta behera, eta nik ez dut horrelakorik egin. Nik neure senaz baliatu beharko dut ondo nagoen edo txarto nagoen jakiteko. Beldur apur bat badaukat, nekatuegi ez ote noan...

Ez dago zortzimilako errazik

Gasherbrum II mendia ez da Himalaian dagoen zortzimilako erakargarriena. Ez dauka Everest edo K2 mendi tontorrek daukaten izenik, ezta zailtasunik ere. Horregatik da aproposa Himalaia aldera lehenengoz joaten diren mendizaleendako. Hala ere, inork ez dezala uste G2ra igotzea brometako kontua denik, batez ere, han

dauden soka eta loturak egoera txarrean badaude. Hamahirugarren gailur garaiena da (8.035 metro), eta Austriako espedizio bat igo zen lehenengoz mendi horretara, 1956an. K4 moduan ere ezaguna, uztaila eta abuztua dira mendi tontor horretara igotzeko hilabete aproposenak. Urteko sasoi onean doa Bittor Amozarrain.

Euskadiko Enduro Txapelketako proba, domekan, Musakolan

XABIER URZELAI

Domekan, ehun motorzalek hartuko dute esku Euskadiko Txapelketarako baliagarria den Enduro Txapelketan. Musakolan hasiko da proba, baina ez da moto-kroseko lasterketa izango. Ibilbide luzeagoa izango du, eta erlojupeko proba izango da.

Goizeko 10:00etan hasiko da proba, eta Euskal Herri osotik etorritako 100 motorzalek hartuko dute esku. Probak lau ordu inguru iraungo du, 14:00etan amaituko da-eta. Enduro modalitatea ez da moto-krosa bezain ezaguna, baina jende asko dabil horrelako probetan esku hartzen. Lasterkariak 30 kilometroko ibilbideari hiru itzuli egin beharko dizkiote, eta hauxe da ibilbidea: Musakola, Epele, Hiru Tontorreta, Elorregi, Etxezarreta, Bedoña eta Musakolara buelta.

ERLOJUAREN KONTRA

Menditik egingo duten 30 kilometroko ibilbide horretan hainbat kontrol izango dira, eta erlojupeko proba denez, kontrol batek bestera ahalik eta azkarren iristen ahalegindu beharko dute. Aurrez ezarritako denbora baino geroago iristen badira, minutu bakoitzeko penalizazioa izango dute, eta penalizazio horiek egingako denborei batuko zaizkie.

Menditik itzulia egin eta gero, Mojategiko zirkuitura sartu eta han erlojupeko beste proba bat egingo dute, kronoa deritzona, eta erlojupeko azken proba horrek du garrantzi handien.

HAINBAT MODALITATE

Lasterketan bost modalitate izango dira: senior txapelketa, junior txapelketa, senior saria, junior saria eta beteranoak. Senior txapelketa eta junior txapelketa modalitateetan esku hartuko



MOTOZALE ELKARTEA

Enduroko motorrak eta moto-krosean erabiltzen dituztenak ezberdinak dira.

dutenek zailtasun handiagoak izango dituzte, trialerak gaintu beharko dituzte-eta. Trialerak motor gainean zeharkatu beharreko zailtasun handiko tartekak dira, eta besteak beste, Elorregin eta Epelen jarri dituzte trialerak.

Moto-kroseko lasterketetan ez bezala, Enduroko Txapelketan lasterkariak hiruak irten-go dira, hamar minutuan behin, hain zuzen ere; eta, antolatzaileen esanetan, ordubete eta hamar minutu inguru beharko dituzte itzuli bakoitza egiteko.

HAINBAT MONDRAGOETAR

Domekako Enduro Txapelketan ibarreko lagun askok hartuko dute parte, tartean, Arrasateko hainbat motorzalek: Javier Arregi, Ander Landaluze, Urtzi Pereda, Fernando Sanchez, Eduardo Galdos, Pedro Mari Larrañaga eta Jose Angel Zuriarrain izango dira domekako proban.

Gainera, Arrasaten motor txapelketetan sari gehien eskuratu duen Ander Landaluzek esan digu domekako bere azken lasterketa izango dela.

FOTOKIROLA



Arrasateko judokak Madrilen

Arrasate Judo Taldeko alebin mailako judokak Madrilen izan dira asteburuan, eta hiru domina ekarri dituzte handik. Igor Hernandezek urrezko domina eskuratu zuen eta Jon Ander Fernandezek eta Christian Serranok brontzezkoa. /X.U.

ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETA

Dribling eta Saukelu Scream taldeek jokatuko dute zapatu arratsaldean finala

Zapatu arratsaldean jokatuko dituzte aurtengo Zaldibar Txapelketako azkeneko norgehiagokak. 17:00etan, You Know! eta Lasagabaster taldeak hirugarren eta laugarren postuengatik lehiatuko dira. Finala, berriz, 18:00etan jokatuko dute Dribling eta Saukelu Scream taldeek. Merezimendu osoz daude bi talde horiek Zaldibarko finalean. Joan den astean, Driblinge 6-5 irabazi zion Lasagabasterri, eta Saukelu 4-1 nagusitu zitzaion You Know taldeari.

ATLETISMOA

Jonathan Perezek zilarra eskuratu zuen Durangon jokatu zen Euskadiko Txapelketan

Joan den astean, Jonathan Perez pertika jauzilariak 4,70 metroko jauzia egin zuen Durangon, eta zilarrezko domina eskuratu zuen. Horrez gain, errelebutako lasterketan, Jon Ander Amado, Iñaki Etxagibel, Ibai Irastortza eta Aitor Elortza laugarrenak izan ziren.

A R E T X A B A L E T A N R E S I D E N C I A L B E R O A



Orain aukeratu
egin dezakegu!



- Duplexak terrazekin
- Atikoak terrazekin
- Logela bateko eta bi logelako apartamentuak
- Hiru eta lau logelako etxebizitzak

Informa zaituz Aretxabaletako gure bulegoan (obra aurrean)
Belorrieta auzoa 13. Tel. 943 711 770

2004ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza:

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa.

Noiz:

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra arte, egunean bost orduko intentsiboa.

Irailaren 6tik 24ra arte, egunean 2 orduko saioak (uztailekoaren jarraipena).

Ikastaroaren iraupena:

130 orduko ikastaroa.


Prezioa: 126 €.

Bulego ordutegia:

Goizez: 10:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-18:00.

Matrikulatzeko epea:

Maiatzaren 25etik ekainaren 18ra arte.



udan freskura beharko duzu... euskara beti

UDAL
EUSKALTEGIAK



ARRASATEKO Udal Euskaltegia

www.udaleuskaltegiak.net

ARRASATEKO Udal Euskaltegia

Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) • 20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 70 77 • Faxa: 943 79 91 43 • euskaltegi@arrasate-mondragon.net



10 bidaiak zozketan

K a r i b e
T u n i s i a
I t s a s b i d a i a
D u b l i n
F i t e r o

Ekainaren 12tik aurrera



Laguntzailea:



Euskaldunok behar dugun

berria

ELKARRIZKETA

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL / 'ESKUAK ELKARRI' ANTZERKI-LANAREN IDAZLEA

"Ikuskizunak herriari erakutsiko dio hainbat kultura esparrutan lan egiteko gai garela"

IKER BARANDIARAN

Gaur, bihar eta etzi, Gokobalu abesbatzak *Eskuak Elkari* antzeulan musikatua egingo du Amaia Udal Antzokian. Lagun ugarik esku hartu dute ikuskizun horretan. Protagonista batzuegan jo dugu, horren gainean berba egiteko.

Askotan esan duzu zu ez zarela historialaria, baina historia oso gustuko duzula.

Hala da. Irakurle txarra naiz, bolalumarekin irakurtzen dut beti, zuzenketak egiten, ideiak hartzen... Baina ez dut nire burua historialaritzat, eta ez nuke historialari izan nahi. Nire ustez, historialariek pertsona neutroak izan behar dute, eta hori oso zaila da.

Zelan sartu zinen proiektu horretan?

Jesus Mari Artze nire kintoa da, biok 1949an jaiotak gara. Urtero kinto eguna ospatzen dugu, eta Artze oso gizon aktiboa denez, etengabe gauzak egitea proposatzen ibiltzen da. Arrasateko historiaren gaineko ikuskizun bat idaztea eskatu zidan. Hala, hurrengo urteko kinto-ospakizunera idatzia eraman nuen, baina ikuskizun bilakatzeko handiegia zen, eta ideia aldatu genuen.

Behin antzerki-lana idatzita edo egokituta eduki eta gero, zein pauso eman zenuten?

Hainbat lagunek antzerki-lana egokitu genuen, eta gure belaunaldiko, 1949ko, hainbat lagun aktore lanak egiteko aukera eskaini genien. Antzerki taldeari Doke izena ipini diote, baina 1949 izena ere izan zezakeen.



IKER BARANDIARAN

Belaunaldikoek baiezkua eman ziguten, eta antzerki-zuzendari lanak egiteko norbaiten bila hasi ginen. Txatxilipurdiko Txatxiartistak taldeko arduradun Mikel Irastortza eta Itziar Rosadorekin harremanetan jarri ginen. Zur eta lur utzi gaituzte biek. Esperientzia ez duen lan-taldea zuzentzeko izugarriko dohai-

na dute!

Musika konposatzeko, Sabin Salaberri lagunarengana jo nuen. Biok aramaioarrak gara, eta polita iruditu zitzaidan aramaioarrak ere Arrasateko historian izan dugun eraginarengatik ikuskizun horretan esku hartzea.

Lan handia izan da halako bertso zaharrak eta dokumen-

tazioa jasotzea?

Ez, dokumentazio lana ez da hain handia izan. Gehiena lehendik jasota neukalako. Zailagoa egin zait bertso zahar horiek osatzeko beste batzuk idatzi behar izatea.

Egia da ikuskizunean abestuko dituzten bertso batzuk euskaraz jasota dauden zaha-

rrenetariko batzuk direla?

Bai, hala da. Horren harira, Arrasaten pribilegiatuak gara. Ikuskizunean, 1448ko erreketaren kronika egiten duten bertsoak sartu ditugu, eta sasoi hartakoa dira. Horrez gainera, 1420 eta 1430 bitartean Aramaion bi bandoren arteko triskantza baten bertsoak ere jasota daude. Badira halako beste adibide batzuk, horretan altxor handia daukagu.

Zeintzuk dira lan horren helburu nagusiak? Iraganeko eta egungo gertaera batzuk parekatu egin dituzu...

Batez ere, ikusleek eta esku hartzen dugunok ondo pasatzea. Eta guk, partaideok, dagoeneko hori lortu dugu. Bestalde, ni beti arduratuta egon naiz Euskal Herrian errotuta daukagun bortizkeriaren jatorriaz. Erdi Aroan Arrasaten egon ziren liskarren erru nagusia feudalismoarena izan zen. Sasoi hartan, herrian, bi ospitale, bi eskola, bi polizia... dena, bi zatitan banatuta zegoen. Gaur egun ere Euskal Herrian, euskara irakasteko AEK eta Habe daude, bi Udalbiltza daude... 1490ean, Errege Katolikoek arrasatearrei esan zieten herria bitan zatituta zuten bandoak alde batera utzi eta bat egiteko. Gaur egun, badirudi norbaitek, kanpotik, oharu beharko gaituela. Historia errebisatu egin dut, gaurko begiekin ikusita.

Zer erakutsiko digu ikuskizun horrek arrasatearroi?

Gai garela hainbat kultura esparru lantzen, eta jendea lan egiteko prest dagoela. Aurkikuntza handia izan da. Horrez gain, Bekobaluk eta Doke taldeak aurrera egiten badute, baditugu beste proiektu batzuk esku artean.

MIKEL IRASTORTZA / ANTZERKIAREN ZUZENDARIA

"Lan horrek Arrasateko historiako hainbat kontu argituko ditu"

Zer egiten du azkoitiar batek ikuskizun hori zuzentzen?

Itziar Rosado arrasatearrrak eta biok azkeneko urteotan Txatxiartistak taldea zuzentzen gabiltza. 2002ko azaroan, Jesus Mari Artzek eta beste lagun batzuek AEDra jo zuten, halako lanetan zebilen norbaiten bila, eta baiezkua eman genien.

Lan handia izan da orain artekoa?

Batzarrak egiten hasi ginen, eta Velez de Mendizabalek idatzitako gidoia moldatzeari ekin genion. Arrasateko historia ia guztia gainbegiratzen zuen, Leze-



txikitik gaur egun arte. Itziarrak, Velezek, Artzek eta laurok moldaketak egin genituen.

Zein izan da ikuskizun hori prestatzeko lan zailena?

Itziar eta biok ordu eta erdiko eszenografiak arduratu gara, eta egin dizkiguten 137 jantziak ere guk irudikatu genituen. Lan zailena izan da

gizonezko aktoreak aurkitzea. Bestela, dena oso ondo joan da. Gehienak esperientzia bariko aktoreak izan arren, izugarriko lana egin dute, eta taldean oso giro ona dago. Asko ikasi dugu hemengo historiaren gainean.

SABIN SALABERRI / MUSIKAREN KONPOSATZAILEA


"Aramaioarra naiz, eta ibar honetako historiak asko erakartzen nau"

Zelatan esku hartu duzu proiektuan?

Orain dela urte eta erdi, Jose Mari Velez de Mendizabalek kontaktu zidan *Eskuak Elkari* ikuskizunaren gidoia idatzita zuela. Eta galdetu zidan ea ezagutzen nuen norbait lan horrendako musika egingo zuena. Gidoia irakurri nuen eta nik neuk egingo nuela esan nion. Velez izugarri poztu zen.

Lan horretatik zerk erakarri zintuen gehien?

Batetik, Velez de Mendizabal lagun-mina dudala. Eta bestetik, jaiotzez ara-



maioarra naizela. Arrasateren eta Aramaioaren gaineko historiak asko erakartzen nau.

Lan handia egin behar izan duzu?

Lan handiena musika asmatzea izan da. Hortik aurrera, musika idatzi eta moldaketak egin ditut. Ilargiaren eta eguzkiaren testuetarako,

denbora eta leku zehatz batekin lotu ezin daitekeen musika idatzi dut; XV. mendeko gertaerendako Erdi Aroko musika; eta Arrasateri zuzenean dagokiontzat, Euskal Herriko musika. Politena Estibaliz Mendiolaren eresia da.



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Iaz balet taldeak erakustaldia egin zuen, euria egin zuen arren.

MUSIKA ETA DANTZA / Ikasturte bukaerako emankizunak

Musika Eskolako balet taldeak emanaldia egingo du

IKER BARANDIARAN

Martitzenean, ekainaren 15ean, Arrasateko Musika Eskolako Balet taldeak emanaldia egingo du Seber Altube plazan. Baletoko ikasle guztiak esku hartuko dute; guztira, 35 gaztetxok. Horrez gain, Musika Eskolak egunotan hainbat kontzertu antolatu ditu.

Martitzenean, ekainaren 15ean, Arrasateko Musika Eskolako balet taldeak erakustaldia egingo du Seber Altube plazan, 18:30ean. Bigarren aldia da talde horrek Seber Altuben ikuskizuna egiten duela. Iaz egin zuten lehenengo aldiz, eta ikasleak oso gustura gelditu ziren. Gainera, urtean zehar Musika Eskolan hainbat emanaldi egiten dituzte. Horrez gain, arrasatearrek, Gastetzen, kalean dantza egin zuten Arabako talde batzuekin batera.

Musika Eskolako balet taldeko ikasle guztiak esku hartuko dute; guztira 35 dira. Txikienek,

5 eta 8 urte artekoek, astean ordu eta erdi egiten dute; erdikoek, 9 eta 10 urte artekoek, astean hiru ordu egiten dute; eta nagusienek, 11 eta 12 urte artekoek, astean sei ordu egiten dute. Ikasturtea bukatzeaz dago, eta horregatik egingo dute emanaldi hori.

40 MINUTUKO SAIOA EGINGO DUTE

40 minutuko saioa egingo dute, eta honako piezak dantzatzeko dituzte: *Somos personas y sentimos, a ti te lo decimos; Tanga girls; Adagio; Sherk y Sherk Diver-tido*; eta *Piratas en batalla por un tesoro robado*. Piezaren arabera, adin bakoitzeko neskatilek dan-

tzatuko dute. Joan den urtean euria izan zuten, baina hala ere emanaldia egin zuten. Ea aurten zorte hobea duten!

HAINBAT KONZERTU EGINGO DITUZTE

Balet erakustaldiaz gain, Arrasateko Musika Eskolak hainbat kontzertu antolatu ditu. Martitzenean, ekainaren 15ean, Musika Eskolako piano ikasleek kontzertua egingo dute eskolan, 19:00etan.

Horrez gain, ekainaren 17an, Musika Eskolako talde instrumentalak kurtso bukaerako kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian. 18:30ean izango da eta bertan honako taldeek esku hartuko dute: balet taldeak, banda txikiak, orkestra txikiak, orkestra handiak, ume kantariak eta perkusio taldeak, hain zuzen ere.

Bestalde, Arrasateko Musika Eskolako bandak Umeen Danborradan, Errementari Dantzan eta San Juan jaietako beste ekintza batzuetan esku hartuko duela iragarri du.

35 gaztetxok egingo dute balet emankizuna Seber Altuben, martitzenean

Punta-puntako rock-and-roll taldeen kontzertua gaztetxean

I.B.

Bihar, zapatua, rock-and-roll kontzertua egingo dute gaztetxean. Ultracuerpos galiziarrek eta Los Cretinos arrasatearrek joko dute. Ez da lehenengo aldia galziarrek Arrasatera datozena.

Aspaldi honetan, Arrasateko gaztetxean hainbat kontzertu egiten dabilta. Badirudi uztailean atsedenditxoak egingo dutela, baina bitartean ez da falta musika zuzenean entzuteko aukerarik.

Bihar, zapatua, Galiziako Ultracuerpos taldeak *The right way* diskoa aurkeztuko du. Ultracuerpos osatzen duten musikariek ibilbide luzea dute. 80ko hamarkada ezkerro rock-and-roll biziaren egiten dihardute, eta hainbat proiektutan esku hartu dute: Mandragoras, Las Peluqueras, High Time, Thee Virus... Azke-

neko izenarekin, Ultracuerpos, bi disko eta single batzuk kaleratu dituzte. Horrez gain, iazko Arrasateko 70eko hamarkadako jaietan, 50eko hamarkadako rock-and-roll kantua jo zituzten, Rockers Go To Hell deitura erabili. Beste batzuetan, berriz, MC5 taldearen kantuz osatutako abestiak bakarrik jotzen dituzte.

LOS CRETINOS ARRASATEARRAK

Ultracuerpos taldea ez da taula gainean bakarrik egongo. Galiziarrekin batera, Los Cretinos talde arrasatearrek joko du. Arrasatearrek ere rock-and-rolla egiten dute, baina apur bat lasaigoa. Taldeko abeslari Jaimek idatzitako kantu batzuek *Burning*, *Loquillo* eta halako *galtzaileen* antzekotasun handiagoa dauka. Bizipen gazi-gozoan gainean abesten dute, gaztelaraz, baina ez pentsa baladak egiten dituztenik, ez horixe!



EL BEASTO


Ultracuerpos talde galziarrek izen handia hartu du Espainiako Estatuan.

KULTURAPILULAK

Ekainaren 19rako AEDk bertso jaialdia antolatu du Monterron parkean

Datorren zapatuan, ekainaren 19an, bertso jaialdia egingo dute Monterron parkean, 22:00etan. AEDk antolatu du, eta honako bertsolariak esku hartuko dute: Manex Agirrek (Aramaio), Jokin Labaie- nek (Arrasate), Iratxe Ibarrak (Markina), Jon Maiak (Zumaia), Gerardo Larraga *Mañukorta*-k (Markina) eta Unai Iturriagak (Durango). Gai jartzailea Enaitz Alustiza bergararra izango da.

Manex Agirre, Jokin Labaien eta Enaitz Alustiza AEDko Bertso Eskolako kideak dira.

 **Gambrinus garagardotegia**

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Erretiratu askok egiten dute ariketa fisikoa, eta oso osasungarria dela diote guztiak.

Penaz gelditu dira Uribarriko erretiratuak gimnasiako ikasturtea bukatzeaz delako

IKER BARANDIARAN

Uribarri elkarteko gimnasia eskolen ikasturtea bukatzeaz dago. 2003ko irailaren 16an hasi zen eta martitzenean, ekainaren 15ean, bukatuko da. Aurtengo ikasturtean 60 lagunek egin dute gimnasia talde horrekin.

Asko aldatu dira gauzak orain dela 15 urte Uribarri elkartean gimnasia egiten hasi zirenetik. Hasieran Uribarri elkarteko egoitza zaharrean (Erguin kalean) egiten zuten, eta egoitza aldaketarekin, gimnasia eskolak ere lekuz aldatu zituzten. Han ibili ziren hainbat urtean, baina ez zuten leku nahikorik: berrogei lagun ziren eta korridorean korrika ibiltzen ziren... Arrazoi horretatik, orain dela lau urte AUKERekin harremanetan jarri ondoren, eskolak Iturripeko kiroldegira eraman zituzten. Horrez gain, ikasle kopurua asko handitu da: lehenengo egoitzan, hamalau bat lagun ziren; bigarren egoitzan, egungoan, 40 bat lagun; eta gaur

egun, 60 lagun baino gehiago. Astean hiru egunean egiten dute —azokarik ez dagoenean—, eta bi txanda dituzte: astelehenean, martitzenean eta eguenetan, 10:30etik 11:15era eta 11:15etik 12:00etara.

60 lagun horietatik zazpi gizonetzakoak dira, eta beste guztiak emakumezkoak.

BIZKORTASUNA HARTZEN DUTE

Gimnasiako eskolen koordinatzaile Sabina Altunak azaldu digu eskola horietan oso ondo pasatzen dutela, eta osasunean asko irabazten dutela. "Egia esanda, gimnasia egiten ez dugu pisurik gal-

tzen. Baina bizkortasun handia hartzen dugu. Badugu kasu bitxi bat, emakume batena: mugitzeko arazoak zeuzkan, eta gaur egun, gimnasiari esker, bizkortasun handia dauka".

Txanda bakoitza 45 minutukoa da, eta erretiratu gehienek denbora laburregia dela uste dute. Ordu batekoa izatea gura dutela diote, baina oraingoz ez da posible. Hala jarraitu beharko dute datorren ikasturtean.

Hainbat urtean bergarar bat izan zuten irakasle, Unai, eta berarekin oso gustura ibili ziren. Orain dela gutxi, berriz, Remi izeneko arrasatear batek ordezkatu

zuen Unai. Dagoeneko harreman handia egin dute Remirekin, eta datorren ikasturtean berarekin jarraitu gura dute.

BAKOITZAK AHAL DUENA EGIN

Gimnasiako koordinatzaile Sabina Altunaren esanetan, bakoitzak ahal duena egiten du. Ez da derrigorrez esfortzu handirik egin behar. Hala ere, ikastaroan esku hartzen duten emakumezko batzuek diote gizonetzko batzuek norgehiagoka balitz bezala jokatzen dutela.

Ikastaroan dabilzanen artean, nagusienak 74 bat urte izango ditu eta gazteenak 59 bat urte. Taldean oso giro ona dute, eta denetatik egiten dute: korrika, beroketa, luzatze ariketak eta muskulu abdominalak indartzeko ariketak, saskibaloian eta tenis-jokatzeko, eta beste gauza asko. Baina denak bere tamainan. Irakasle bakoitzak estilo propioa dauka, baina guztiak gauza bera esaten diete: uda partean, etxean, ariketa fisikoa egiteko. Baina gurago dute pasatzea.

Pisurik ez dute galtzen, baina horren ordez bizkortasun handia hartzen dute

Eskolak 45 minutukoak baino gehiago, ordu batekoak izatea gura dute

LABUR

Toki Argi elkarteak Valentziara bidaiara egingo du

Toki Argi elkarteak Valentziara bidaiara egingo du. Irailaren 15etik 22ra bitartean egingo dute. Interesatuak 300 euro ordaindu beharko dute. Horren barne egongo dira ostetua, bidaiak eta janaria. Besteak beste, Valentziako inguruak eta Monasterio de Piedra bisitatuko dituzte txangoan.

Bihar, zapatua, Toki Argi Donostia txangoa egingo du

Bihar, zapatua, Toki Argi elkarteko erretiratuek Donostia txangoa egingo dute. Batzuek goiz-eguerdia Donostian egingo dute, eta horren ostean, bazkaltzera Oriora joango dira. Beste batzuek, berriz, bazkalordurako, Igeldotik Oriora oinez joatea erabaki dute.

Abaroa elkarteak Portonovora bidaiara egingo du irailean

Irailaren 12tik 19ra bitartean Abaroa elkarteak Portonovora (Galizia) bidaiara egingo du. Interesatuak 285 euro ordaindu beharko dute eta ekainaren 18a aurretik eman beharko dute izena. Prezio horren barne garraioa, pentsio osoko erregimena eta bi txango egongo dira.

Ekainaren 16an, Uribarrikoak Garagartzara

Erretiratuen elkarte gehienek ez dituzte udan ekintzarik antolatuko. Hori baino lehenago, Uribarri elkarteko erretiratuek Garagartzara ibilaldia egingo dute. Ekainaren 16an izango da, eta oinez joango dira Garagartzara. Hitzordua elkartean egin dute, 16:00etan, hain justu.



Taberna Berri jatetxea

Durana 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

EZETZASMATU



Non dago argazkian ikusten duzuen saskibaloirako saski hori?
Arrastoa: kirol mota asko egin daiteke inguruan.


Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Kas laranja edo Kas limoia
2 litro

0,94€ 156 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIA PILAR CALVOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria Pilar!
Galderen erantzun zuzena:
San Frantzisko elizan.

ARRASATEKOHISTORIA

Joan den mendeko igandeen gainekoa (II)

'NIRE HAURTZAROKO...' / VELEZ DE...

Antzinako domekak berba-gai izan genituen joan den astean, gaztetxoek ikuspuntutik. Oraingo honetan, nagusiagoek zer egiten zuten izango dugu berba-gai, betiere, Josemari Velez de Mendizabalen liburua oinarri hartuta:

"Zinea baino emozio biziagoak bilatzen zituztenek Herriko Plazan zuten jomuga: neskek dantza egitera eta mutilak, gehienetan, neskek dantzan nola zegiten ikustera. Arrasateko mutilek, oro har, euskaldunen eredu tipikoari eutsi diote beti. Banaka batzuk kenduta, gainerakoak oso zuku gutxi atera diogu dantzaren aukerari. Orduan ere, izaera lotsati eta hezigebe baten atzean ezkutatzen ziren mutil askoren borondateak eta, ondorioz, neskenganako urratsa garantiaz eman ahal izateko, bizigarri kimikoen beharrea aurkitzen ziren. Horrela, hainbat abenturako abiapuntua izandako Txoko taberna, plazara hurbildu aurreko tarteko muga zen askorentzat, beste batzuek Ferrerias kaleko *El Ruso*-rena nahiago zuten bitartean. Han, basoerdi bat eskatu eta ardoa zigarro baten errautsaz nahasten zen. Dirudinez, formula horri esker, musika bandak



Neskek dantzan egitera joaten ziren plazara eta mutilak, gehienetan, neskek dantzan nola egiten zuten ikustera.

eskainitako azken saioan nesken aurrera behar beste ausardiarekin aurkezten ziren mutil lotsatiak. Kimikak egingo ez duena!

Plazan txistulariak aritzen ziren, ordu erdi batez, musika bandari txanda egokitu bitartean. Fandango, arin-arin eta atalaiakoe-

Mondra futbol taldeak arratsaldeko partidua irabaziz gero pieza bat gehiago jotzen zuten

kin gazteria preparatu egiten zen hurrengo saiorako. Ez da azpimarratu behar, noski, atalaiakotetan izaten zela neska-mutikoak eskutik elkar oratzeko lehen aukera. Musikariek ekiten ziotenean, berriz, gauzak serioagoak ipintzen ziren. Seguru asko, udal agin-

tariren baten garaiko arau motelara makurtuta, bandak oso tartelaburak -bi pieza- eskaintzen zituen dantzarako. Txistularien eta, 1958tik aurrera, *gramola*-ren laguntza tartekatuz, atsedendia eramankorrago egiten zen. Bitartean, tren geltokirainoko ibilaldia egokia gerta zitekeen ligatu nahi zuenarentzat, baina (...) orduko gazteek azkeneko momentura arte itxaroten zuten ligatzeko.

Plazara itzulita, azken txandako jota batek eta pasodobleak markatzen zuen gauaren amaiera. Huraxe zen mutilek neskei dantza egitea eskatzeko unea. Ordura arte, senar-emaztegaiak eta bikote ezkonduak ezik, mutilak neska dantzari begira egoten ziren, haiengana hurbiltzea "arriskatu" gabe. Nolanahi ere, neska askorengan bizirik diraute, garai hartako mutil dantzari iaio batzuei buruzko oroitzapenak. Badirudi berezko merituenatik Joakin Etxebarria eta Juan Karlos Lasaga azpimarratu behar genituzkeela. (...) Mondra futbol taldeak arratsaldeko partidua irabaziz gero pieza bat gehiago jotzen zuen bandak azkeneko emaldian, eta, beraz, horri esker luzatu egin zitekeen aukeraturerikiko harreman arina. Eta horrela hurrengo igandera arte".

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko ekainaren 11 / 112. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Bi aramaioar Eskolarteko Euskadiko Txapelketara

UBANE MADERA

Hiru aramaioar txapeldun izan dira Arabako VIII. Eskolarteko Bertsolari Txapelketan. Horren ondorioz, datorren ekainaren 19an jokatu den Euskadiko Txapelketan parte hartuko dute.


Aramaiotik, zazpi bertsolarik parte hartu zuten Arabako VIII. Eskolarteko Bertsolari Txapelketan; eta zazpiotatik, hiruk irabazi egin dute zegokien saioa.

IDATZIZKO BERTSOAK

Batetik, idatzizko bertsoen proba jokatu zuten. Proba horretan, 700etik gora ikaslek parte hartu du eskualdeka jokatu diren kanporaketetan. Horietatik, 55 inguru iritsi ziren finalera, eta 12 urteko Xabier Igoa aramaioarra gailendu zen 14 urte azpiko mailan.

BAT-BATEKO LEHIAKETA

Eta beste bi aramaioarrak batbateko bertso saioan gailendu ziren. 100 bat lagun elkartu zen Gasteizko Armentia ikastolan saio hori ikusteko. Horien guztien aurrean jardun zuen bertsotan, besteak beste, Markel Arriolabengoa aramaioarrak. "Hasieran



Iker Agirrekin batera, Markel Arriolabengoa ordezkatuko du Araba ekainaren 19an.

lasai, eta bukaeran urduri samar", hark esan digun moduan. Kontuak kontu, ondo ibili zen eta berak eraman zuen txapela. Besteak beste, bi bertso bukaera emanda eta bigarren fasean, ofiziotikako proba egin behar izan zuen. Markel Arriolabengoa kontatu digu txikitatik datorkiola bertsolaritzara

rako zaletasuna eta laugarren mailan hasi zela Bertso Eskolan.

Bukatzeko, 14tik 18 urterakoen artean, Iker Agirrek lortu zuen txapela. Adituen arabera, gainerako parte hartzaileen ondoan, etorri eta bizitasun handiena izan zuten bi irabazleek: Iker Agirrek eta Izar Mendigurenek.

Ezohiko ekimenak egiten dabilta eskolakoak

U.M.

Datorren astean kontsumo lantegiak egingo dituzte San Martin Eskolan. Bestalde, oraingo astean, lehenengo eta bigarren mailako ikasleak Zarauzko barnetegian izan dira.

Opor sasoia gerturatzen doan neurrian, eskolan ohikoak ez diren egitasmoak lantzen dituzte. Hala, adibidez, Eusko Jaurlaritzak antolatuta, datorren eguean eta barikuan, kontsumo lantegiak egingo dituzte eskolan. Birziklapena, ehungintza, jakien analisiak, publizitatea, kontsu-

mitzaileen eskubideak eta antzerako gaiak landuko dituzte umeek Jaurlaritzako bi begiralek lagunduta. Goizean jardungo dute horretan, 13:00ak arte.

IRTEERAK

Eta ezohiko ekitaldien artean, oraingo eguaztenetik gaur arte (barikua), eskolako aurreneko eta bigarren mailako neska-mutikoak Zarauzko barnetegian izan dira. Han zenbait irteera egiten ibili dira, besteak beste, Chillida-Leku museoan ikusi dute. Era berean, gaur, barikua, Gasteizko igerilekuetara eta hondartzara joateko asmoa zuten, baina,

jakinarazi digutenez, bertan behera utzi dute txangoa.

OPORRAK ETA UDALEKUAK

Bestalde, eta oporrak aipatu ditugunez, laster hartuko dituzte oporrak eskolakoek, San Juan egunaren bezperan, hain zuzen ere. Edozelan ere, uztailean aspertu ez daitezen, Udalean dagoeneko gertu dituzte aurtengo udalekuak. Herriko jaien ostean hasiko dira, uztailearen 7an, hain justu ere. Hamar eguneko udalekuak izango dira. Zortzi begirale ibiliko dira neska-mutikoak zaintzen. Dagoeneko 80 neska mutikok eman dute udalekuetarako izena.

Euskararen erabilera indartzeko hitzarmena

U.M.

Hamabi udalek euskararen aldeko hitzarmena sinatu dute Euskadiko Kutxarekin. Horien artean dago Aramaioko Udala. Hitzarmen horren arabera, besteak beste, Euskadiko Kutxak Aramaion duen bulegoan, bezeroarekiko harremanetan lehentasuna emango diote euskara erabiltzeari.

Sei puntuko hitzarmena sinatu dute Aramaioko Udalak eta Euskadiko Kutxak. Lehenik eta behin, hitzarmena sinatu duten erakundeen arteko harremanak euskaraz izango direla hitzartu dute; bestetik, Euskadiko Kutxak konpromisoa hartu du Aramaioko bulegoan euskararen presentzia ugaltzen ahalegintzeko. Horren harira, diote, adibidez, orain errenta aitortpena

egiteko hartuko dituzten langileak euskaldunak izango direla. Horrekin batera, Euskadiko Kutxan bezeroari lehenengo hitza euskaraz esango diote; gasteak bereziki kontuan hartuko dituzte kutxako zerbitzuak euskaraz erabil ditzaten; kutxazainen sarrerako agurra euskaraz izango da; sukurtsaleko kartelak euskaraz ipiniko dituzte; kanpotik etorritako espainolezko propaganda ez dute ikusgai jarriko; leku-izenen kasuan euskarazko izen ofiziala erabiliko dute eta besteak beste, Euskadiko Kutxak ziurtatu gura du bulegoko langileak gauza izango direla edozein lan euskaraz egiteko.

Udalaren eta Euskadiko Kutxaren artean hartutako konpromisoa datozen lau urteotarako da. Bestalde, hitzarmena eraginkorra izan dadin, jarraipen-batzordea abiaraziko dute.

LABUR

Eskola garraiorako urteroko dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du Udalak

Aramaioko Udalak jakinarazi digu zabalik dagoela herritik kanpora ikasten dutenek garraiorako dirulaguntza eskatzeko epea. Hain justu ere, interesa duenak datorren ekainaren 20a baino lehen egin beharko du eskaera Udalean. Ikasleek honako baldintzak bete beharko dituzte dirulaguntzok eskatzeko: DBH ikasten ibiltzea (Arrasateko Institutura doazenek izan ezik); HSAOG ikasten ibiltzea; Erdi edo Goi Mailako Heziketa Zikloren bat egiten ibiltzea edo unibertsitate mailako ikasketak egiten ibiltzea. Eskaerarekin batera matrikulazio ziurtagiria aurkeztu beharko da. Gero, jasotako eskaera kopuruaren arabera eta eskatzaile bakoitzaren baldintzen arabera zehaztuko du Udalak eman beharreko laguntzen kopurua. Adibidez, zenbat eta urrunago ikasi, orduan eta laguntza handiagoa jasoko du ikasleak. Udaletik jakinarazi digutenez, eskaera asko jaso ohi dituzte; iaz, adibidez, 60 bat izan ziren.

Bestalde, Arrasateko Institutura doazenendako, Udalak beste modu batez bideratuko ditu laguntzak.

Bañera elkarteak oraindik ez du etorkizuna ziurtatzeko erreleburik lortu

Bañera Kirol Elkartearen etorkizunak zalantzan segitzen du, izan ere, oraindik ez du inork hartu elkarte horren gaineko ardurua. Elkarteak gaur egungo zuzendaritzako kideek esan digutenez, batek edo batek interesa agertu du, baina, ez du konpromiso serioirik hartu. Hala, egoerak horrela jarraitzen badu eta inor ez bada agertzen, Udalera joko dute. Asmoa da Udalak ikustea zein den elkartearen egoera eta, besterik ezean, Udala egitea elkartearen kargu. Gaineratu digutenez, Bañera elkarteak taldeetako jokalariek eta entrenatzaileak lanean jarraitzeko gertu daude.

ERRETRATUZAHARRA

Denbora
libreko lehengo
ohiturak

Urteak joan ahala ohitura berriak sortzen eta ohitura zaharrak aldatzen direla jakin badakigu. Hori erakusten duen argazki zaharra ekarri dugu oraingo astean. Hain zuzen ere, 40ko hamarkadako argazkia da.

Saso hartan, herriko jaiez gain, arrasatearrek aire zabalean egiten zituzten jarduera ugari; adibidez, Arantzazura oinez joateko ohitura zuten askok. Argazkiko gure lagunei halako irteera batetik bueltan zetozela atera zieten argazkia. Honakoak dira, ezkerretik eskumara: Cristina Madinabeitia, Esperanza Velasco, Feli Corral eta Tere Zabaleta.

Herritarrek zuten beste ohituretako bat Debara trenez joatea zen. 1967ra arte erabili ahal izan zuten tren horretarako; izan ere, urte hartan kendu egin zuten Arrasateko linea. Itxura denez, ordurako auto ugari zegoen herrian, eta trenaren erabiltzaileen kopurua izugarri murriztu zen; horren ondorioz, linea hark errentagarri izateari utzi zion, eta



azkenean, 1967ko abenduaren 31n kendu egin zuten.

Debara joatea askorendako oporraldi sasoiko plana izaten zen: Debako hondartzara trenez joatea. Honela gogoratzen du Carmelo Zubillagak hura: "Ni sartu nintzen Cerrajeran abuztuan 26an. Hasten ziren

bakazinuak Andra Mari bixamonan, 16an, eta 26an barrura. Izeten ziren zortzi egun jai. Ba ez zauen dirurik kanpora joateko. (...) Amak pagia ematen bazauen Debara tren hartuta. Ilusino bat! Orduan trenian pila jentia Debara. 35 bat km. eta treniak tartetan auen ordu bete ixa. Hantxe igari

ein, atsaldia pasau eta berriro azkeneko trenarekin etxera. Horreik bakazinuak izeten ziren orduan".

Argazkia eta informazioa: Arrasate, langileek eraikitako herria liburuua.

Urtea: 40ko hamarkada.

NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

Zerrajerako
eraikinean
aldaketak

Itxuraz, azkeneko zortzi urteotan Zerrajerako eraikina ez da askorik aldatu, ezta eraikineko inguruak ere. Eraikin horrek izango duen erabiltzean, baina, hainbat aldaketa izango dira. Orain dela zortzi urte erabaki zuen Udalak Zerrajerako eraikina Enpresa Berritzaileen Zentroa izatea, eta gaur egun enpresa askok dute Saiolanen egoitza; Goienak, adibidez.



≈ 1996 Zortzi urteren ondoren, baina, Udalak beste asmo batzuk ditu Zerrajerako eraikinerako; enpresek lekuz aldatu beharko dute.



2004 Udalaren asmoa da herriko hainbat talde eraikin horretara pasatzea; horretarako, eraikina berritzeko lanak egingo dituzte.



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Monte
taberna

Maalako errabaja 2
Tel.: 943 79 20 56

Orduetgia:
Asteleheneetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

ileapaindegia
peluqueria

Gorka

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
• Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asejim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartera, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Bai, pentsatzen ari zaren
guztia egiteko gauza da.



Opel Astra berria. Fida zaitez zure begiez.

Gertuagotik begira egiozu: IDSplus gidatzeko sistema interaktiboa, Sport Switch botoia kirol-gidatze hobea izateko, ECOTEC motor indartsuak, Twinport, 200 ZP-rainoko CDTI, eta faro egokituak dituen bakarra bere klasean

Proba ezazu zure Opel kontzesionarioan

Astra gama: kontsumo (l/100 km) mistoa 4,9 tik 9,1 era. CO₂ emisioa (g/km) 132 tik 218 ra

Giauto

San Andres 10 D. Tel.: 943 77 30 10. **ARRASATE**